



**GAZAKO
SARRASKIA
GELDITU!**
KONTINGENTE POLITIKO EGARRE
PALESTINAREN ELKARTEA

Zelan egin berba herri bati

non gosariko janak bonba usaina duen egunero
gosaritarako bonbak ez diren ezer baldin bada
batere.

Herri bati

non heriotza arnasaldi artean den gertatzen,
hala esan dit Mohammed El-Kurdek,
nik heriotzaz ez baitakit ezer.

Nik ez dakit ezer

hemen nire gela aratzean nire aulki erosoan

hemen Gernikaren herrian

gure herri kolonizatu eta inoiz kolonizatzaile eta berdin

mendebaldirrean

milaka kilometrotara

kafea eta ehun goxoak

haurren bat jolasean auto bat pasatzean besterik ez da entzuten
entzungor egin dezaket

zergatik da hain erraza entzungor egitea?

Genozidio bat

milaka kilometrora ere entzun beharko litzateke.

Nik ez dakit ezer.

Baina gogoan dut andre ileurdin bat Parisko manifestazio
jendetsuan

zelan etorri zitzaidan esku arteko kartelak zer ote zioen galdetzen

Palestinako genozidioa euskaraz idatzita egonagatik nahiko

unibertsala ez balitz lez



**GAZAKO
SARRASKIA
GELDITU!**
KONPONBIDE POLITIKOA ERABAN!
PALESTINAREN ENKARRAGUNA

zer eta esateko

ez da genozidioa
ez da genozidioa zioen
ez ozeanoaz bestaldeko politikari batek

ez ozta-ozta ulertzen ditudan hizkuntzetan idatzitako
komunikabideek

baizik eta une hartan nire parean emakume ileurdirin
batek

eta zelan ez dela genozidioa
zelan ezetz errefuxiatu-guneak ari direnean bonbardatzen
euren gorputzaz gain dena kendu dioten – euren gorputza baino
ez duten pertsonak direnean jo-puntua
eta gorputza ere ari zaienean ahitzen gosea, polioa eta
hepatitisa

euren gorputza Gazako luraren fruitua delako
gorputz oro gorpu izan arte ez dutelako lurperatuko Palestina
eta zelan ez da hori izango
genozidioa

24 orduko epea etxetik alde egiteko

*norabait edonora joan zaitez alde hemendik zure lurra ez da
zure lurra*

elikagaiz betetako kamioietara oldean hurbildutako herritar
sarraskituak

elikagai bila oldean oldean sarraskituak herritarrak
helduak umeak *herritarrak zibilak*

tankeen kontra harriak

lurra defendatzeko lurra bera ez dagoenean besterik

sarraskia gosetea tortura

alez ale gure hiztegian txertatzen goazen zentzugabekeriak
harik eta gure zentzuzko egunerokotasun normalean paisaiako

elementua diren arte

urrutiko paisaia zaratagabea



**GAZAKO
SARRASKIA
GELDITU!**
KOMPONDE POLITIKOA ERABILI
PALESTINAREN ELKARTASUNA

/
eta galdetu nahi dut zelan heldu garen honaino
baina bada azalpenik
80 urtetako historia koloniala eta bost bat mende aurretik
gutxi batzuen aberastasuna askoren minaren lepotik

mendebaldea ekialdeaz bazkatzen beste behin
eta zergatik ez
zertan eztabaidatu egingo genukeen moduan joko-
zelaia malkar bat ez balitz

malkarra da

Estatu Batuek betatu badezakete nazioarteko justiziak epaitua

zer da Nazio Batuen Erakundea
zer Nazioarteko Zigor Auzitegia
onartzen bada nazioarteko legea
(bere horretan luze eman genezakeena kritikatzin)

gutxiengo boteretsuenek nahieran oker dezaten
eta onartu diodanean esan nahi dut jarraitzen dugula egunero
ordu berean jaikitzen ogia erosten
lanera joaten poteak hartzen
normala balitz lez

eta ez dakit normala den honezkero ez dakit normala definitzen
baina noski badela *logikoa*
kolonialismo neoliberalaren ondorio guztiz zentzuduna
zentzugabekeria hutsa den arren
sarraskia den arren
genozidioa

logikoa
eta nola geldiarazi ez badugu logika hori iraultzen?



/
20 urtean 40 urtean

**GAZAKO
SARRASKIA
GELDITU!**
KOMPONDE POLITIKOA ERABILI
PALESTINAREN ELKARTASUNA

ez dakit non egongo garen
seguruenik biziko gara oraindik ere eliteei gure existentzia
errentagarri bazaie
edo aldatu badugu zeozer

jaiotzen eta jaiotzear daudenek genozidioari pentsaezina iritziko
ote diote
galdetuko ei dute

zelan gertatu ote zen
zelan utzi ote zuten hori gertatzerik
zelan utzi ote genuen
zelan ari ote gara uzten

ikasiko al dugu?
Zergatik ez dugu honezkero
ikasi?
Beti da beranduegi
eta horrexegatik
hau da unea.